## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

## ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**10/2024 Foru Araua, uztailaren 10ekoa, 2024ko indarreko aurrekontuko neurri osagarriei buruzkoa**

Jakinarazten dut Arabako Batzar Nagusiek 2024ko uztailaren 10eko osoko bilkuran onetsi dutela, eta nik aldarrikatzen eta agintzen dut argitara dadila “10/2024 Foru Araua, uztailaren 10ekoa, 2024ko indarreko aurrekontuko neurri osagarriei buruzkoa”, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek eta agintariek bete eta betearaz dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 10a

*Diputatu nagusia*
*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

### 10/2024 FORU ARAUA, UZTAILAREN 10EKOA, 2024KO INDARREKO AURREKONTUKO NEURRI OSAGARRIEI BURUZKOA

ZIOEN AZALPENA

Arabako Foru Aldundiak zenbait jarduketa egin nahi ditu aurrekontuan kredit並urik ez daukaten beharrizan batzuei aurre egiteko. Horrez gainera, luzatutako kredituekin aurre egin ezin zaien diru beharrizanak eragiten dituzten beste jarduketa batzuen finantzabideak osatu nahi dira. Orobat, jarduketa horietako batzuetan konpromiso kreditua sortu behar da edo dagoeneko badagoena handitu.

Horrenbestez, kreditu gehigarria onetsi behar da, eta horren eskaera Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorrak (hemendik aurrera, AFAO) 66. artikuluan ezartzen duenaren arabera izapidetu behar da; hara zer xedatzen duen artikulu horrek:

“Aurrekontuaren kargura hurrengo ekitaldira arte atzeratu ezin den gasturen bat egin behar denean, horretarako krediturik ez badago, edo kreditua nahikoa ez bada, behin foru arau honetan baimendutako aldaketak agortuta, Arabako Foru Aldundiak, ogasunaren, finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen sailak txostena egin ondoren, kreditu gehigarria sortzeko foru arauaren proiektua igorriko die Batzar Nagusiei.

Foru arauaren proiektuari memoria ekonomiko bat erantsiko zaio, proposatzen den finantzaketa iturriari buruzko informazio zehatza jasoko duena.”

Hain zuzen ere, honako jarduketa hauek finantzatu behar dira:

— Arabako Foru Aldundian:

• Ardoaren Bidea Elkartea: ardoaren turismo sustapena.

• Uribarri Ganboako urtegiko hondartzen HTJP.

• Moredako lur ureztatuen desjabetzea.

• Basque Culinary Center. Ardoaren Bikaintasun Zentroa.


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

• Hitzarmena: aireko baliabideak.

• Aireko baliabideen erabilera.

• Nekazaritzako azpiegiturak hobetzea 2024.

• ADIFen ekarpena: oinezkoen pasabidea Manzanosen.

• Hitzarmena ADIFekin: Manzanosko saihesbidea.

• ADIFen ekarpena: oinezkoen pasabidea Pobesen.

• Hitzarmena ADIFekin: Pobesko saihesbidea.

• ALHko Mugikortasun Jasangarrirako Plana gauzatzea.

• EGEF: bizikleta bideak.

• Hitzarmena Aiaraldearekin: esku hartzeak Kexaan.

• Iruña-Veleia hiria: indusketa eta ikerketa.

• Amurrioko egoitzako obrak.

• Zaintza egoitzaren proiektua.

• Basque Automotive Manufacturing Center-Automozioko Fabrikazio Aurreratuko Zentroa.

• Landa eremuan askotariko zerbitzuak garatzeko programa.

• Gazteentzako etxebizitza abalen programa.

• Bastidako Udala. Haur eskolaren ekipamendua.

• Mañuetako Udala. Kaia jartzeko laguntza.

• Kexaa: sariak, ideien lehiaketa eta bisita gidatuak.

• AFARABA Elkartea. Jarduerak.

• 55 urtetik gorakoentzako laguntza plana.

• Arabadendak. Saltoki txikiak sustatzeko programa.

— Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoan:

• LPZko lanpostu berriak.

• Erabiltzaileen garraioaren kontratazioa.

• Familiaren baitan zaintzeko babes gehigarrirako prestazio ekonomikoa.

• Laguntza pertsonal gehigarrirako prestazio ekonomikoa.

• Adela elkartea: jarduerak.

• ASAFES Erroak elkartea.

• Isabel Orbe-Down Araba elkartea: jarduerak.

• Hogar Alavés: osasun mentaleko egoitza egokitzea.

• Itundutako zerbitzuak: gizarteratzeko eguneko zentroa.

• LPPE: bizitza independentea.

• Adineko pertsonentzako itundutako egoitza zerbitzuak.

• Atseden programa. Adimen desgaitasuna duten gazteak.

• Etxez etxeko laguntza zerbitzua.

• APDEMA Elkartea. Desgaitasuna duten adinekoentzako programa.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Kreditu gehigarria Arabako Foru Aldundiaren sarreren aurreikuspenaren eta luzatutako gastu kredituen zenbatekoaren arteko diferentziaren kargura finantzatuko da.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen jarduketei dagokienez, kreditu gehigarria onesteak berekin dakar barruko transferentziak doitzea, finantzatu ahal izateko: zenbateko berean gehituko dira Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuetan erakunde horrentzat ezarritako gastu transferentzien partiden zuzkidura eta erakunde autonomoaren aurrekontuan Arabako Foru Aldundiaren transferentziak jasotzen dituzten partidetako sarrera aurreikuspenak.

Gainera, erakunde autonomoko lanpostu berrietarako kreditu gehigarria onetsiko bada, ezinbestekoa da bost plaza horiek sortzeko baimena ematea.

Halaber, konpromiso kredituez denaz bezainbatean, dauden beharrizanak kontuan hartuta, eta AFAOren 59. artikuluan ezartzen den baimenen araubideari helduta, Batzar Nagusiek gehitu behar dute konpromiso kredituen egoera orriko zenbatekoa, eta horretarako kreditu berriak onetsi behar ditu edo dagoeneko baimenduta daudenen zenbatekoak gehitu behar ditu, ekitaldiko aurrekontua gauzatzeko foru arauan ezarritako muga gaindituz gero.

Hori dela eta, indarreko aurrekontua (2023ko ekitaldikoa) gauzatzeko foru arauak 11. artikuluan baimena ematen dio Foru Gobernu Kontseiluari konpromiso kredituen zenbatekoa aldatzeko: gehienez guztira esleitutako kopuruaren ehuneko 10.

Beste alde batetik, aribideko urteko indarreko aurrekontuan ezarritako jarduketa batzuek ez dute behar kreditu gehigarririk finantzatzeko, baina, hala ere, baimena behar dute gauzatzeko. Horietako batzuk zuzenean emandako dirulaguntzak dira.

Hain zuzen ere, honako jarduketa hauek baimendu behar dira:

— Arabako Foru Aldundian:

• Zuzeneko dirulaguntza UNEDi heziketa ziklo baterako.

• Zuzeneko dirulaguntza Arabako Merkataritza Ganberari enpleguaren arloko zenbait jarduketa egiteko.

• Zuzeneko dirulaguntza GREFAri: Bonelli arranoaren kontserbazioa.

• Ziklo integrala: proiektuak eta obrak. Mezkiako ur hornidura.

• Araba Uraren eta Biodibertsitatearen Erreserba. (Ondare naturala).

• Nekazaritzako ustiategiei laguntzeko neurriak.

• Igeriketa ikastaroa: garraioa (2023-2024).

• Euskaltzaindia: jarduerak.

— Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoan:

• Bizimodu Independentearen Bulegoa.

• Lakondoa Adimen Desgaitasunaren Arretarako Zentroa.

• Genero indarkeriaren biktimentzako harrera egoitzak eta esku hartzea.

• Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatua.

• Laudioko Adimen Desgaitasunaren Arretarako Zentroa.

• Abegia. Askotariko patologiak dituztenentzako baliabide soziosanitarioa.

• Egoitza pertsonak ardatz dituen bizikidetza eredura egokitzea.

• NGEU Etxean Bai proiektuaren obrak.

• Arabako Gorrak Elkartea: funtzionamendua eta jarduerak.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

- ASPASOR Elkartea: funtzionamendua eta jarduerak.
- Eginaren Eginez Elkartea funtzionamendua eta jarduerak.
- Gao Lacho Drom Elkartea: jarduerak.
- Vicente Abreu Elkarteen Federazioa: jarduerak.
- ATECE Elkartea: jarduerak.
- Arabako Gorrak Elkartea: zeinu hizkuntzako interpreteak.
- TEARABA Arabako Autismo Elkartea: jarduerak.
- APDEMA Elkartea: jarduerak.
- ASPACE Elkartea: jarduerak.
- Itxaropena Elkartea: jarduerak.
- Gurutze Gorria: landa eremuko jarduerak.
- Elizbarrutiko Caritas: landa eremuko jarduerak.
- AEMAR elkartea, jarduerak.
- ASPANAFOHA Elkartea: esku hartze psikosoziala.
- ASAFES Elkartea: enplegu lagundua.
- ASAFES Elkartea: gizartean parte hartzea eta gizarte inklusioa sustatzea.
- ASASAM Elkartea: gizartean parte hartzea eta gizarte inklusioa sustatzea.
- ASAJER Elkartea: ludopatia elkartea.
- Jeiki Fundazioa: toxikomanoen eta toxikomano ohien gizarteratzea.
- Jeiki fundazioa: hazgarri programa.
- Elizbarrutiko Caritas: Gizarteratze programa.

Azkenik, AFAOren 59. artikuluaren 5. apartatuan aldaketa teknikoa egitea proposatzen da, foru planeko kredituek datozen urteetako bakoitzeko konpromiso kredituen mugan sortzen duten distortsioa konpontzeko.

**1. artikulua**

Bi espediente onesten dira Arabako Lurralde Historikoko 2024ko indarreko aurrekontu orokorrei buruz: batetik, M_S02/2024/0000000005 espedientea, 9.740.962,16 euroko kreditu gehigarria sortzeko; bestetik, M_S04/2024/0000000012 espedientea, konpromiso kreditua aldatzeko, hain zuzen ere 38.182.860,00 euro gehitzeko.

Kreditu gehigarria Arabako Foru Aldundiaren sarreren aurreikuspenaren eta luzatutako gastu kredituen zenbatekoaren arteko diferentziaren kargura finantzatuko da.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari dagokionez, kreditu gehigarria onesteak berekin dakar barruko transferentziak doitzea, finantzatu ahal izateko: zenbateko berean gehituko dira Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuetan erakunde horrentzat ezarritako gastu transferentzien partiden zuzkidura eta erakunde autonomoaren aurrekontuan Arabako Foru Aldundiaren transferentziak jasotzen dituzten partidetako sarrera aurreikuspenak. Doikuntza hori kreditua gaitzeko M_S01/2024/0000000045 espedientearen bidez egingo da.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Baimena ematen da II. eranskinean zehazten diren jarduketak egiteko. Jarduketa horiek ez daude jasota Arabako Lurralde Historikoko 2024ko indarreko aurrekontu orokorretan, ez dute kreditu gehigarririk behar finantzatzeko eta zuzenean ematen diren dirulaguntzak dira.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Baimena ematen da III. eranskinean zehazten diren jarduketak egiteko. Jarduketa horiek ez daude jasota Arabako Lurralde Historikoko 2024ko indarreko aurrekontu orokorretan, ez dute kreditu gehigarririk behar finantzatzeko eta ez dira zuzenean ematen diren dirulaguntzak.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Baimena ematen da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean bost plaza sortzeko.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorraren 59. artikuluaren 5. apartatua aldatzen da eta honela geratzen da:

"5. Konpromiso kredituak gehienez bost ekitalditan aplikatu ahal izango dira.

Ekitaldi bakoitzari egotzitako gastuak ezin izango du gainditu kalkuluaren oinarriari ehuneko hauek aplikatuta ateratzen den zenbatekoa: lehen ekitaldian, 100eko 70; bigarren ekitaldian, 100eko 60; eta hirugarren, laugarren eta bosgarren ekitaldietan, 100eko 50.

Muga horiek kalkulatzeko oinarria dagokion kapituluaren hasierako kredituari dagokiona izango da.

Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duten foru arauetan xedatzen dena aplikatuz sortzen diren aurrekontu kredituen ondorioz ekitaldiei egozten zaizkien gastuak ez dira zenbatuko aurreko mugen ondorioetarako."

AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 10a

*Lehendakaria*
*IRMA BASTERRA UGARRIZA*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

# ANEXO I – I. ERANSKINA

| | Subvención directa Dirulaguntza zuzena | Importe 2024 Zenbatekoa | Importe 2025 Zenbatekoa | Importe 2026 Zenbatekoa | Importe 2027 Zenbatekoa | Importe 2028 Zenbatekoa | Importe TOTAL Zenbatekoa GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 02100.G/920021/78100020<br>Basque Culinary Center. Centro Excelencia del Vino<br>Basque Culinary Center. Ardoaren Bikaintasun Zentroa | X | 300.000,00 | 5.000.000,00 | 2.700.000,00 | | | 8.000.000,00 |
| 10202.G/414100/46290***<br>Programa Desarrollo Multiservicio Rural<br>Landa eremuan askotariko zerbitzuak garatzeko programa | | 90.000,00 | 100.000,00 | | | | 190.000,00 |
| 10202.G/414100/48000***<br>Programa de Avales para Jóvenes Vivienda<br>Gazteentzako etxebizitza abalen programa | | 100.000,00 | 100.000,00 | | | | 200.000,00 |
| 10202.G/920102/76290***<br>Ayuntamiento de Labastida. Equipamiento Haurreskola<br>Bastidako Udala. Haur eskolaren ekipamendua | X | 150.000,00 | | | | | 150.000,00 |
| 10202.G/920102/76290***<br>Ayuntamiento de Baños de Ebro. Ayuda para la Instalación de Muelle<br>Mañuetako Udala. Kaia jartzeko laguntza | X | 60.000,00 | | | | | 60.000,00 |
| 15101.G/433153/48100183<br>Basque Automotive Manufacturing Center-Centro de Fabricación Avanzada Automoción<br>Basque Automotive Manufacturing Center-Automozioko Fabrikazio Aurreratuko Zentroa. | X | 1.250.000,00 | 1.250.000,00 | 1.250.000,00 | 1.250.000,00 | | 5.000.000,00 |


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

| | Subvención directa Dirulaguntza zuzena | Importe 2024 Zenbatekoa | Importe 2025 Zenbatekoa | Importe 2026 Zenbatekoa | Importe 2027 Zenbatekoa | Importe 2028 Zenbatekoa | Importe TOTAL Zenbatekoa GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 15101.G/433153/44900151<br>VIA: Potenciación Aeropuerto de Vitoria-Gasteiz<br>VIA: Vitoria-Gasteizko aireportua indartzea | X | | 1.200.000,00 | 1.400.000,00 | 1.600.000,00 | 1.800.000,00 | 6.000.000,00 |
| 20200.G/931200/22706***<br>Premios, Concurso de Ideas y Visitas Guiadas Quejana<br>Kexaa: sariak, ideien lehiaketa eta bisita gidatuak. | | 36.300,00 | | | | | 36.300,00 |
| 25301.G/232252/48100***<br>Asociación AFARABA. Actividades<br>AFARABA Elkartea. Jarduerak | X | 10.000,00 | | | | | 10.000,00 |
| 25401.G/136251/20400250<br>Convenio Medio Aéreo<br>Hitzarmena: aireko baliabideak. | | 200.000,00 | 200.000,00 | | | | 400.000,00 |
| 25401.G/136251/20400251<br>Medio Aéreo Uso<br>Aireko baliabideen erabilera. | | 110.260,00 | 110.260,00 | | | | 220.520,00 |
| 30502. G/241300/ 47000***<br>Plan Apoyo para Personas Mayores de 55 Años<br>55 urtetik gorakoentzako laguntza plana | | 100.000,00 | 200.000,00 | | | | 300.000,00 |
| 30502.G/431300/48100***<br>Arabadendak. Programa de Promoción del Pequeño Comercio<br>Arabadendak. Saltoki txikiak sustatzeko programa | X | 35.000,00 | | | | | 35.000,00 |
| 30502.G/432300/48100337<br>Asociación Ruta del Vino: Difusión Territorio Histórico de Álava<br>Ardoaren Ibilbidea Elkartea: Arabako Lurralde Historikoan zabaltzea | X | 90.000,00 | | | | | 90.000,00 |
| 40101.G/452400/60000406 | | 280.000,00 | 220.000,00 | | | | 500.000,00 |

| | Subvención directa Dirulaguntza zuzena | Importe 2024 Zenbatekoa | Importe 2025 Zenbatekoa | Importe 2026 Zenbatekoa | Importe 2027 Zenbatekoa | Importe 2028 Zenbatekoa | Importe TOTAL Zenbatekoa GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Expropiación Regadío Moreda<br>Moredako lur ureztatuen desjabetzea. | | | | | | | |
| 40101.G/414400/47900404<br>Medidas Agroambientales<br>Nekazaritza eta ingurumeneko neurriak | | | 1.000.000,00 | | | | 1.000.000,00 |
| 40207.G/162400/62200409<br>Planta de Compostaje en Vitoria-Gasteiz<br>Gasteizko konpostaje-planta | | | 200.000,00 | | | | 200.000,00 |
| 40208.G/456400/22799446<br>NGEU Servicio Oficinas de Transformación Comunitaria. Comunidades Energéticas<br>NGEU Eraldaketa Komunitarioko Bulegoen Zerbitzua. Energia-komunitateak | | | 287.000,00 | | | | 287.000,00 |
| 40208.G/456400/60990403<br>PSTD Playas del Embalse de Ullíbarri-Gamboa<br>Uribarri Ganboako urtegiko hondartzen HTJP | | 9.600,00 | 582.000,00 | | | | 591.600,00 |
| 40208.G/456400/76290407<br>Mejora Infraestructuras Agrarias 2024<br>Nekazaritzako azpiegiturak hobetzea 2024 | | 300.000,00 | | | | | 300.000,00 |
| 50102.G/453500/72109501<br>Aportación ADIF Paso Peatones Manzanos<br>ADIFen ekarpena: oinezkoen pasabidea Manzanosen | X | 200.000,00 | 450.000,00 | | | | 650.000,00 |
| 50102.G/453500/60900526<br>Convenio ADIF Variante Manzanos<br>Hitzarmena ADIFekin: Manzanosko saihesbidea | | 361.673,71 | 1.600.000,00 | | | | 1.961.673,71 |
| 50102.G/453500/72109502<br>Aportación ADIF Paso Peatones Pobes<br>ADIFen ekarpena: oinezkoen pasabidea Pobesen | X | | 550.000,00 | 550.000,00 | | | 1.100.000,00 |

9

| Subvención directa Dirulaguntza zuzena | Importe 2024 Zenbatekoa | Importe 2025 Zenbatekoa | Importe 2026 Zenbatekoa | Importe 2027 Zenbatekoa | Importe 2028 Zenbatekoa | Importe TOTAL Zenbatekoa GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 50102.G/453500/60900527<br>Convenio ADIF Variante Pobes<br>Hitzarmena ADIFekin: Pobesko saihesbidea | | | 5.950.000,00 | 2.000.000,00 | | 7.950.000,00 |
| 50102.G/453500/60900520<br>FEDER Vías Ciclistas<br>EGEF: bizikleta bideak | 563.578,11 | 1.360.000,00 | | | | 1.923.578,11 |
| 50201.G/441500/64100504<br>Ejecución Plan Movilidad Sostenible THA<br>ALHko Mugikortasun Jasangarrirako Plana gauzatzea | 331.340,00 | 1.604.800,00 | 1.300.800,00 | 500.000,00 | | 3.736.940,00 |
| 70102.G/336700/68900700<br>Excavación e Investigación Ciudad Iruña-Veleia<br>Iruña-Veleia hiria: indusketa eta ikerketa | 200.000,00 | | | | | 200.000,00 |
| 70109.G/336702/68200702<br>Convenio Aiaraldea: Intervenciones Quejana<br>Hitzarmena Aiaraldearekin: esku hartzeak Kexaan | 150.345,14 | | | | | 150.345,14 |
| 80100.G/231800/63200800<br>Obras Residencia Amurrio<br>Amurrioko egoitzako obrak | 120.000,00 | 1.268.000,00 | | | | 1.388.000,00 |
| 80100.G/231800/64000800<br>Proyecto Residencia de Cuidados<br>Zaintza egoitzaren proiektua | 300.000,00 | 600.000,00 | | | | 900.000,00 |
| 81201.G/231811/22799811<br>Servicio Residenciales Concertados Personas Mayores<br>Adineko pertsonentzako itundutako egoitza zerbitzuak | 615.694,20 | | | | | 615.694,20 |
| 81201.G/231811/22799834<br>Programa Respiro Jóvenes con Discapacidad Intelectual<br>Atseden programa. Adimen desgaitasuna duten gazteak | 60.000,00 | | | | | 60.000,00 |

10



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

| | Subvención directa Dirulaguntza zuzena | Importe 2024 Zenbatekoa | Importe 2025 Zenbatekoa | Importe 2026 Zenbatekoa | Importe 2027 Zenbatekoa | Importe 2028 Zenbatekoa | Importe TOTAL Zenbatekoa GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 81201.G/231811/22799863<br>Programa de Atención Domiciliaria<br>Etxez etxeko laguntza zerbitzua | | 300.000,00 | | | | | 300.000,00 |
| 81201.G/231811/48100***<br>Asociación APDEMA. Programa de Mayores con Discapacidad<br>APDEMA Elkartea. Desgaitasuna duten adinekoentzako programa | X | 25.000,00 | | | | | 25.000,00 |
| 81201.G/231811/14309811<br>Nuevos Puestos RPT<br>LPZko lanpostu berriak | | 170.000,00 | | | | | 170.000,00 |
| 81201.G/231811/22300811<br>Contratación Transporte de Usuarios<br>Erabiltzaileen garraioaren kontratazioa | | 1.640.771,00 | | | | | 1.640.771,00 |
| 81201.G/231811/48000826<br>Prestación Económica para Cuidados en el Entorno Familiar Protección Adicional<br>Familiaren baitan zaintzeko babes gehigarrirako prestazio ekonomikoa | | 900.000,00 | | | | | 900.000,00 |
| 81201.G/231811/48000829<br>Prestación Económica de Asistencia Personal Protección Adicional<br>Laguntza pertsonal gehigarrirako prestazio ekonomikoa | | 350.000,00 | | | | | 350.000,00 |
| 81201.G/231811/48100847<br>Asociación ADELA: Actividades<br>ADELA elkartea: jarduerak | X | 15.000,00 | | | | | 15.000,00 |
| 81201.G/231811/48100848<br>Asociación ASAFES: Programa Erroak | X | 15.000,00 | | | | | 15.000,00 |

11

| | Subvención directa Dirulaguntza zuzena | Importe 2024 Zenbatekoa | Importe 2025 Zenbatekoa | Importe 2026 Zenbatekoa | Importe 2027 Zenbatekoa | Importe 2028 Zenbatekoa | Importe TOTAL Zenbatekoa GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ASAFES elkartea. Erroak | | | | | | | |
| 81201.G/231811/48100846<br>Asociación Down Araba-Isabel Orbe: Actividades<br>Isabel Orbe-Down Araba elkartea: jarduerak | X | 110.000,00 | | | | | 110.000,00 |
| 81201.G/231811/78100813<br>Hogar Alavés Adecuación Residencia Salud Mental<br>Hogar Alavés: osasun mentaleko egoitza egokitzea | X | 30.000,00 | | | | | 30.000,00 |
| 81201.G/231811/22799814<br>Servicios Concertados Centro de Día Inclusión<br>Itundutako zerbitzuak: gizarteratzeko eguneko zentroa. | | 131.400,00 | | | | | 131.400,00 |
| 81201.G/231811/48000830<br>Prestación Económica de Asistencia Personal Vida Independiente<br>Laguntza pertsonal prestazio ekonomikoa. Bizitza independentea | | 30.000,00 | | | | | 30.000,00 |
| | TOTAL GUZTIRA | 9.740.962,16 | 17.882.060,00 | 13.150.800,00 | 5.350.000,00 | 1.800.000,00 | 47.923.822,16 |

12

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

# ANEXO II – II. ERANSKINA

| | Importe 2024<br>Zenbatekoa |
|---|---|
| 02100.G/920021/72109020 UNED: Estación Vitoria-Gasteiz de I+D+i Cooperativa<br>02100.G/920021/72109020 UNED: Gasteizko geltokia, I+G+b kooperatiboa | 40.000,00 |
| 25201.G/335251/48100250 Euskaltzaindia: Actividades<br>25201.G/335251/48100250 Euskaltzaindia: jarduerak | 38.000,00 |
| 30502.G/241300/48100338 Cámara Comercio, Industria de Álava: Empleo<br>30502.G/241300/48100338 Arabako Merkataritza eta Industriako Ganbera: enplegua | 210.000,00 |
| 40209.G/172401/48100414 GREFA: Conservación Águila de Bonelli<br>40209.G/172401/48100414 GREFA: Bonelli arranoaren kontserbazioa | 34.395,77 |
| 81201.G/231811/48100813 Asociación Arabako Gorrak: Funcionamiento y Actividades<br>81201.G/231811/48100813 Arabako Gorrak Elkartea: funtzionamendua eta jarduerak | 10.760,65 |
| 81201.G/231811/48100814 Asociación ASPASOR: Funcionamiento y Actividades<br>81201.G/231811/48100814 ASPASOR Elkartea: funtzionamendua eta jarduerak | 69.348,30 |
| 81201.G/231811/48100815 Asociación Eginaren Eginez: Funcionamiento y Actividades<br>81201.G/231811/48100815 Eginaren Eginez Elkartea funtzionamendua eta jarduerak | 6.060,82 |
| 81201.G/231811/48100818 Asociación Gao Lacho Drom: Actividades<br>81201.G/231811/48100818 Gao Lacho Drom Elkartea: jarduerak | 4.880,27 |
| 81201.G/231811/48100819 Federación Asociaciones Vicente Abreu: Actividades<br>81201.G/231811/48100819 Vicente Abreu Elkarteen Federazioa: jarduerak | 13.726,26 |
| 81201.G/231811/48100821 Asociación ATECE: Actividades<br>81201.G/231811/48100821 ATECE Elkartea: jarduerak | 73.112,87 |
| 81201.G/231811/48100822 Asociación Arabako Gorrak: Intérpretes Lengua Signos<br>81201.G/231811/48100822 Arabako Gorrak Elkartea: zeinu hizkuntzako interpreteak | 12.601,55 |
| 81201.G/231811/48100823 Asociación Autismo Araba TEARABA Elkartea Actividades<br>81201.G/231811/48100823 TEARABA Arabako Autismo Elkartea: jarduerak | 73.480,00 |
| 81201.G/231811/48100824 Asociación APDEMA: Actividades<br>81201.G/231811/48100824 APDEMA Elkartea: jarduerak | 13.713,94 |
| 81201.G/231811/48100825 Asociación ASPACE: Actividades<br>81201.G/231811/48100825 ASPACE Elkartea: jarduerak | 17.860,52 |
| 81201.G/231811/48100827 Asociación Itxaropena: Actividades<br>81201.G/231811/48100827 Itxaropena Elkartea: jarduerak | 32.861,78 |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

| | |
|---|---|
| 81201.G/231811/48100828 Cruz Roja: Actividades Zona Rural<br>81201.G/231811/48100828 Gurutze Gorria: landa eremuko jarduerak | 9.623,00 |
| 81201.G/231811/48100829 Cáritas Diocesanas: Actividades Zona Rural<br>81201.G/231811/48100829 Elizbarrutiko Caritas: landa eremuko jarduerak | 10.173,00 |
| 81201.G/231811/48100830 Asociación AEMAR actividades<br>81201.G/231811/48100830 AEMAR elkartea, jarduerak | 64.572,12 |
| 81201.G/231811/48100831 Asociación ASPANAFOHA Intervención Psicosocial<br>81201.G/231811/48100831 ASPANAFOHA Elkartea: esku hartze psikosoziala | 119,10 |
| 81201.G/231811/48100834 Asociación ASAFES: Empleo con Apoyo<br>81201.G/231811/48100834 ASAFES Elkartea: enplegu lagundua | 1.472,95 |
| 81201.G/231811/48100837 Asociación ASAFES: Promoción Participación e Inclusión Social<br>81201.G/231811/48100837 ASAFES Elkartea: gizartean parte hartzea eta gizarte inklusioa sustatzea | 175,00 |
| 81201.G/231811/48100838 Asociación ASASAM: Promoción Participación e Inclusión Social<br>81201.G/231811/48100838 ASASAM Elkartea: gizartean parte hartzea eta gizarte inklusioa sustatzea | 2.024,00 |
| 81201.G/231811/48100839 Asociación ASAJER: Lucha contra Ludopatías<br>81201.G/231811/48100839 ASAJER Elkartea: ludopatia elkartea | 3.159,45 |
| 81201.G/231811/48100840 Fundación Jeiki: Reinserción de Personas Toxicómanas y Ex-toxicómanas<br>81201.G/231811/48100840 Jeiki Fundazioa: toxikomanoen eta toxikomano ohien gizarteratzea | 5.832,13 |
| 81201.G/231811/48100841 Fundación Jeiki: Programa Hazgarri<br>81201.G/231811/48100841 Jeiki fundazioa: hazgarri programa | 3.772,56 |
| 81201.G/231811/48100851 Cáritas Diocesanas: Programa de Inclusión Social<br>81201.G/231811/48100851 Elizbarrutiko Caritas: Gizarteratze programa | 5.707,50 |

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

# ANEXO III – III. ERANSKINA

| | |
|---|---|
| 40207.G/452401/60902418 | Ciclo Integral Proyectos y Obras<br>Ziklo integrala: proiektuak eta obrak |
| 40209.G/172401/62101410 | Araba Reserva del Agua-Biodiversidad (Patrimonio Natural)<br>Araba Uraren eta Biodibertsitatearen Erreserba (natura ondarea) |
| 40100.G/419400/47900403 | Medidas de Apoyo a Explotaciones Agrarias<br>Nekazaritzako ustiategiei laguntzeko neurriak |
| 10202.G/441100/48100110 | Transporte Aprendizaje Natación 2023-2024<br>Igeriketa ikastaroak: garraioa (2023-2024) |
| 10202.G/441100/48100111 | Transporte Aprendizaje Natación 2024-2025<br>Igeriketa ikastaroak: garraioa (2024-2025) |
| 81201.G/231811/22799885 | Oficina de Vida Independiente<br>Bizimodu Independentearen Bulegoa |
| 81201.G/231811/22799815 | Centro Atención a la Discapacidad Lakondoa<br>Lakondoa Desgaitasunaren Arretarako Zentroa |
| 81201.G/232811/22799831 | Acogimiento Residencial e Intervención Víctimas de Violencia de Género<br>Genero indarkeriaren biktimentzako harrera egoitzak |
| 81201.G/231811/22799843 | Programa Especializado de Intervención Familiar<br>Familian Esku Hartzeko Egitarau Espezializatua |
| 81201.G/231811/22799891 | Centro Atención a la Discapacidad Llodio<br>Desgaitasunari arreta emateko Laudioko zentroa |
| 81201.G/231811/22799849 | Abegia Recurso Sociosanitario Patologías Múltiples<br>Abegia, askotariko patologiak dituztenentzako baliabide soziosanitarioa |
| 80200.G/230801/62200806 | Adaptación Residencia Modelo Convivencial Centrado en Persona<br>Egoitza pertsonak ardatz dituen bizikidetza eredura egokitzea |
| 80200.G/230801/62200801 | NGEU Obras Proyecto Etxean Bai CCA<br>NGEU Etxean Bai proiektuaren obrak AKK |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.07.22 06:17:10 Z